



club de montaña **GAZTEIZ** mendi taldea

ARGAZKI-LEHIAKETA GAZTEIZ MENDI TALDEAK ANTOLATUA: OINARRIAK

ANTOLATZAILEA:

Gazteiz Mendi Taldeak antolatu du lehiaketa. Lehiaketaren xedea mendizaletasuna sustatzea da.

LEHIAKETAREN OINARRIAK:

Parte hartu ahalko dute Gazteiz Mendi Taldeko kide guztiek.

Eskakizun hauek bete beharko dituzte partaideek:

- **Mendizaletasunaren inguruko argazkiak egitea, edozein modalitateri lotuak direla ere: mendia, mendi-ibiliak, eskalada, arroiak, pistako eskia, iraupen-eskia, BTT, ibilketa nordikoa...**
 - **Argazkia Gasteizko MK-k antolatutako edozein txangotan egina izan beharko da. Ez da onartuko klubak argitaratutako jarduera-programaren barruan egin ez den argazkirik.**
 - **Argazkiaren atzealdean, irudiak zein txangori egiten dion erreferentzia adieraziko da.**
 - **Lanek gutxienez 25x35cm-ko formatua eta gehienez 40x50cm-ko formatua izan beharko dute**
 - **Argazki-paperean aurkeztuko dira gutun-azal itxiaren barruan. Gutun-azalean parte-hartzailearen izen-abizenak, klubeko bazkide-zenbakia eta harremanetarako telefonoa agertuko dira.**
 - **Argazkiak aurkezteko ordutegia astelehenetik ostiralera 19:00-21:00 ordura bitartean izango da.**
-
- Zuzenean egindako argazkiak izan daitezke, iragazkien laguntzarekin edo gabe, eta, neurri batean behintzat, onartuko dira argazki-ukitu edo -moldaketak. Paisaia-argazkiak izan behar dute. Pertsonak agertu daitezke, baina identifikatzeko moduan agertzen badira, eta argazkiak lehiaketa irabazten badu, bertan ageri diren pertsonen irudia lagatzeko baimenak aurkeztu beharko ditu hura egin duen partaideak.
 - **Gehienez ere 4 argazki** aurkeztu ahalko ditu lehiaketara partaide bakoitzak, betiere epe barruan, eta lehiaketaren gaia errespetatzen dutenak.
 - Argazkiak hautatuak izateko, lehiaketaren gaia errespetatu beharko dute, bai eta adierazitako eskakizunak bete ere.
 - Lehiaketan parte hartuko dute **2022eko azaroaren 1etik 30era bitartean (egun biak barne)** klubera bidalitako argazki guztiek.
 - Partaideek beren argazkien irudi-eskubideak lagako dizkiete antolatzaileei, edozein komunikazio-bideetan sustapen asmoz erabil ditzaten.
 - Behin epea amaituta, epaimahai batek hautatuko du argazki irabazlea. Epaimahaia paritarioa izango da, eta argazkilari eskarmentudunek eta klubeko bi bazkidek osatuko dute, adin txikikoaren eta handiagoaren irizpidea betetzen badute (irizpide horiek betetzeko adin-tartea 18 eta 99 urte bitartekoa izango da).



club de montaña **GAZTEIZ** mendia taldea

- Irabazleak baimena emango dio antolatzaileari, bi elementu hauek antolatzailearen sare sozialetan argitaratzeko.
- **Hiru sari emango zaizkie argazki onenei:**
Lehengoa saria: urdaiazpiko ezkur bat
Bigarren saria: Errioxa JDK ardo botilak dituen estutxea
Hirugarren saria: Idiazabal JDK gazta

Argazki irabazlea 2023rako klubaren jarduera programaren azala izango da.

- Lehiaketa amaitu eta hurrengo 72 orduko epean, antolatzaileak harremanetan jarriko dira irabazlearekin, posta elektronikoko helbide bat adieraziko da, beratar idatzita irabazleak bere datu pertsonalak eman ditzan, eta argazkia zinez berak egina dela egiaztatu dezan.
- Irabazleek 7 lan eguneko epea izango dute (antolatzaileek jakinarazpena egin dion egunetik hasita), datuok komunikatzeko. 7 lan eguneko epea gaindituta, irabazleek ez badiete antolatzaileei erantzun, bertan behera geratuko da saria.
- Baiezkoan, Gazteiz Mendi Taldearen egoitzara (Pintore kalea, 74) jo beharko du irabazleak, bertan saria jasotzera. **Sari banaketa 2022ko abenduaren 23ko arratsaldean egingo da.**
- Baldin eta jakinarazpena egin osteko 7 laneguneko epe barruan erantzunik emango ez balu, Gazteiz Mendi Taldeak bere gain hartuko du beste irabazle bat izendatzeko eskubidea, betiere artikuluko honetan azaldutako prozedurari jarraiki. Balizko beste irabazle horrek ere ez balu 7 laneguneko epean erantzungo, lehiaketa irabazle gabe eta saria eman gabe utz ditzake.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar, bai eta oinarrien inguruan antolatzaileek egin ditzakeen interpretazioak ere.

DATU PERTSONALEN BABESA

- Partaideek onartzen dute sare sozialetan edo beste baliabide batzuetan argitaratuko diren eduki eta iruzkinak antolatzaileek egoki jotzen dituen baliabideetan konpartitu ahal izango direla. Era honetako lehiaketa batean parte hartzeak baliatuko diren sare sozialetako arauak onartzea dakar berekin.
- Parte hartzea publikoa da. Irabazlearen datu pertsonalak jasoko dira soil-soilik saria eman ahal izateko, ez beste ezertarako.
- Argazkian adingabeak agertzen badira, egileak sare sozialetan argitaratutako irudiaren kopia bat bidali beharko e-postaz instagram@cmgazteiz.com helbidera, adingabearen aita, ama edo legezko tutorearen baimen esplizituarekin batera, hartara Gazteiz Mendi Taldeak egoki irudituz gero argazki hori beste edozein baliabidetan argitaratu ahal dezan.



club de montaña **GAZTEIZ** mendi taldea

ERANTZUKIZUNAK

- Antolatzaileek bere gain hartzen dute oinarri hauetan deskribatutako eskakizunak betetzen ez dituzten partaideak, edo lehiaketaren arauak zein xedea urratuko luketenak lehiaketatik eta, oro har, edozein sustapen-egintzatik baztertzeko eskubidea.
- Antolatzaileek bere gain hartzen dute eskubide pertsonalak urratzen dituzten argazkiak, bai eta iraingarri zein diskriminatzaile izan daitezkeenak ere, salatze edo ken daitezela eskatzeko eskubidea.
- Argazkiek ezingo dute hirugarrenen marka edo/eta produktuak erakutsi, ez eta horiei erreferentzia egin ere, publizitate-asmo argi eta garbien mende.
- Jatorrizkoak izan behar dute argazki guztiak. Halaber, partaideek adieraziko dute –eta horren erantzukizuna hartuko dute beren gain– euren dela argitaratutako materialaren irudi-eskubideak eta jabetza intelektuala. Antolatzaileek plagiorik antzemango balu irudiren batean, irudi hori automatikoki baztertua izango da. Antolatzaileek antzeman ez arren gero salaketarik balego, egilea izango da erantzule bakarra. Horiez guztiez gain, antolatzaileek ez dute bere gain hartuko segurtasun-neurriak gorabehera gertalitekeen edonolako kalte-galeren gaineko inolako erantzukizunik, baldin eta kalte-galera horien jatorrian zerbitzu eta edukien erabilpen desegokia balego erabiltzaileen aldetik; orobat, ez dute bere gain hartuko atariaren bidezko ezein komunikazio-egintzatan hirugarren batek egin lezakeen identitate-ordezterri egotzi dakioken kalte-galeren erantzukizunik.
- Partaideek ezein betebeharrak edo konpentsaziotik salbuesten dituzte antolatzaileak, baldin eta ezinbestekak bultzaturik edo legeak hala derrigortuta lehiaketa hau bertan behera utzi behar izango balitz; halakorik gertatuko balitz, partaideei jakinaraziko litzaieke ahalik eta modurik egokienean.

INFORMAZIOA ETA HARREMANETARAKO DATUAK

Bi bide hauek eskaintzen ditu lehiaketaren antolatzaileak (GAZTEIZ MENDI TALDEA) harremanetan jartzeko:

E-posta:

instagram@cmgazteiz.com

Telefonoa: 945 25 03 54